

Hitz beste

Haur eta gazte liburuen kritika eta erreseinak

4 +



EL SOLDADITO DE PLOMO
Ilustratzailea: Jörg Müller
López, Salamanca, 2005

Interpretazio bide berriak

Anderseni eskaini zizkion bere orrialdeak *Behinola* aldizkari honen 12. aleak, eta bertako «Hitzontzi» atalean Berunezko soldadutxoaren bertsio bat irakurri ahal izan genuen, Patxi Zubizarretak egina. Gero, OEPLIren ekimenez, edizio txukun batean, ipuin honen hainbat bertsio berritzaile ezagutu ahal izan genuen, *El soldat de plom*, *A valente bailarina de plástico*, *E o soldadiño de chumbo*, eta, euskaraz, Maite Francoren *Dantzari lentejuela bihotza*.

Alabaina, ipuin horren segidak ez du etenik izan eta Jörg Müller-ek ikaragarritzko lana eskaini digu izenburu bereko irudi liburuan. Hain

zuzen ere Hans Christian Andersen-en ipuin berbera hartu du ardatz historia desberdin, ezohiko eta, batik bat, gaurkotu hau eskaintzeko: ipuina gaur egunean kokatua dago, hiri handi batean, eta nor eta Barbyren gisako panpina bat da dantzariñoa, baina amaiera hiri urrun bateko zabortege batean hasiko da, hain zuzen ere turista aberats baten eskuxuritik...

Sentimentalegia, erromantikoe-gia izan daitekeen originala bikain gaurkotua datorkigu, eta nahiz eta hitzik gabeko lana izan, ñabarduraz eta xehetasun ugariz osatua dago, pertsonalizatua, eta batzuetan oraindik ere susmagarria den haur eta gazte literaturaren kalitate nolakoa izan daitekeen erakustera datorkigu. Horregatik da ezinbestekoa.

Laura Sagastume

6 +



BALERIOREN ERABAKIA
Xabier P. Docampo
Erein, Donostia, 2005

Askatasun aldarria

Xabier P. Docampo galegoa idazle beteranoa eta oso saritua ez ezik, oso maitatua ere bada, Galizian zein Galiziatik kanpo. Euskaratuak dituen obren artean, azpimarratzekoa da *Gauetz ate joka datozenean*, Haur eta Gazte Literaturako Sari Nazionala eskuratutakoa 1995ean. Idazten dituen obretako inspirazio iturri nagusia ahozko tradizioa da, gaietan, eta batez ere estiloan (kaskik idazlearen ahotsaren kadentzia liluragarria entzun daiteke), esaldiak ahozkotasanaren beharretara egituratzen dituelarik.


Balerioren erabakia da euskaraz jaso dugun haren azken emaitza, lehen irakurleei zuzendutako testu labur bat. Bere laburrean, ordea, bizitzeari

buruzko ikasgai bikaina eskaintzen du: Balerio zaharra ustekabeko etenak hasi da tartekatzen bere egunerokotasun aspergarrian: ogia egiteko lehengaiaren bila azokara egiten ohi zituen bisitaldietan, bat-batean egun batean astoa erosi zuen, beste batean eskusoinua... harik eta bere ohiko bizimodua errotik aldatu zuen arte. Jende gehienak ibiltzen dituen bide jorratuegietatik aldendu, eta zidor eta xenda baztertuetatik ibiltzen hasi zen, benetan gustuko zituen gauzak eginez, eta tokian tokiko zoriak eskainitakotik biziz.

Balerioren jokabidearen atzean askatasun aldarrria dago, alde bate-tik, lan egiteko bizitzearen gainetik bizitzeko lan egitea hobesten du-elako, eta, bestetik, «lan egite» hori zeregin artistikoekin lotzen duelako (kantatzea, kontatzea), gaur egun ahaztuxe dugun artistaren izaera bohemiaren bidetik. Eta apustua ondo ateratzen zaio, umeentzako ipuin bateko amaiera zoriontsu gisa ez ezik, ametsak betetze hutsa apustua irabaztea delako ere.

Ipuin biribila Xosé Cobas-en ilustrazio ederrez lagundua, umeek presarik gabe irakurtzeko zein hel-duen ahotik entzuna izateko.

Manu Lopez Gaseni



URDABURUTARRAK
Anthony Browne
Itzultzailea: KOLDO IZAGIRRE
Kalandraka, Pontevedra, 2006

Amak etxetik alde egin behar duenean

«Urdaburu jauna Jon eta Josu semeekin bizi zen etxe polit batean, eta etxe politaren ondoan lore politik zeuzkan lorategian eta auto polita estalpe batean. Etxean emaztea zeukan.» Urdaburu jaunaren eta honen bi semeen irudiaz batera esaldi hauek ageri dira liburu honen lehen orrian, aurkezpen orrian. Irudi idilikoak, gizon bat dotore jantzita irribarrez, bi seme alde bietan –hauek ere irribarrez eta eskolako uniforme txukuna jantzita eta atzean, lorategiaren amaieran, etxe garbi, txukun eta polita. Jakina, Brownek hasiera-hasieratik iragartzten dizkigu bere lan honen nondik norakoak, deitura (Urdaburu) dugu pista bat; beste bat «etxean emaztea zeukan» esaldi guztiz adierazgarria. Izan ere, haur txikientzako album honetan etxean dauzkaten emazte edo amei buruz aritzen baita idazle-illustratzaile ezaguna.

Anthony Browne, liburu honen egilea, nazioarte mailan ezaguna eta prestigio handia duen idazle, eta batez

ere ilustratzailea dugu. Bere lanetan narratzaile ezberdinak erabiltzen ditu; istorioa kontatzen duena hirugarren pertsona dugu bat, baina hori ez da liburuko ahots narratibo bakarra, irudien bidez askotan ikuspegi oso ezberdinak azaltzen baitizkigu. Horrela, kontakizunaren hariak eskatuta, protagonista ezberdinen begiekin ikusi ahal izango dugu gertatzen dena, edo hirugarren pertsona baten ikuspegitik. Eta, aldi berean, testuaren eta ilustrazioaren arteko oreka erabatekoa da informazioa emateko orduan, izan ere elementu biak osagarriak dira eta bien artean, hitzen eta irudien informazioaren bidez, lortzen da mezua era egokian zabaltzea. Alde horretatik Brownek primeran erabiltzen ditu eskura dituen errekurtsioak kontatu nahi duen istorioa azaltzeko.

Album honetan kontatzen den istorioa nahiko sinplea da, etxetik kanpo duen lanaz gain etxeko lan guztiak egiteaz kokoteraino egonik etxetik alde egiten duen emakumearen istorioa. Urdaburu familia Urdaburu bilakatzen den ipuina, alegia. Eta, itxaropenari atea zabalik uzten dion amaiera duen ipuin honetan istorioa bera, interesgarria eta gaurkototasun handikoa izanik, askoz ere erakargarriagoa, landuagoa eta ederragoa dugu honen kontatzeko era.

Irakurlea (eta ikuslea, album hau oso proposa baita haur txikiei kontatzeko edo erakusteko) Urdaburu familiaren berri jasotzen du hasieran, nolakoak diren, zer egiten duten... eta egoeraren berri ematean liburugileak kolore biziak eta protagonisten aurpegi alaiak –edo, hobe esanda, aho zabalak, beti ari baitira oihukatzen, eskatzen, exijitzen– azaltzen dizkigu alde batetik, aita eta semeak aurkeztean. Ama, aldiz, kolore tristeekin eta aurpegia behin ere erakutsi gabe agertzen zaigu etxeko lanak egiten sukaldean, geletan... eta etxetik

kanpo lanera abiatzean; oso pertsona grisa dugu, garrantzirik gabekoa, edo, beste modu batean esanda, besteen menpekoa.

Egoera hau guztia hausten da etxera sartzean aitak «Non dago ama?» egiten duen galderak erantzunik jasotzen ez duenean. Aitaren irudia, irudi geldia dugu, atean maletina eskuan eta traje dotorez jantzia, baina honen aurpegia ikusi gabe, irakurleak –ikusleak– harridura aurpegia imajina dezan. Une horretatik aurrera aitaren ikuspegitik irakurri ahalko dugu *Urdeburuak!* dioen oharra, eta kolore bizi eta alaiek triste eta grisei uzten diote protagonismoa... eta gizonaren eta semeen aurpegiak, poliki-poliki, urde aurpegiak bilakatuko dira.

Amaren itzulerak egoera berri bat ekarriko du familiaren baitara, eta aukera eman irakurleari honen aurpegia, eta aurpegiaren duen irribarre ikusteko.

A. Brownek ilustrazioen espazioarekin ere jolasten du narrazioari, edo istorioari tonu egokia emateko. Irudi itxiak, orri osokoak, inguratutako laukia hausten duten irudiak... perspektiba ezberdinetatik ikuslea protagonista batekin edo bestearekin identifika dadin... azken finean, istorio osoak, testuak eta irudiak, harrapa gaitzan.

Xabier Etxaniz Erle

8+



IZEKO MIRENEK LAGUN BERRIA DU
Goio Ramos
Irud: EIDER EIBAR
Ibaizabal, Bilbo, 2005

Maitasuna haur baten begiradarekin

Gaur egun gai, estilo eta tonu oso ezberdinetako lanak argitaratzen dira euskaraz, bai eta errealismo kritiko korrante barruan koka daitezkeen idazlanak ere. Horien artean koka daiteke Goio Ramosek idatzi duen *Izoko Mirenek lagun berria du* ipuina. Lehen pertsonan kontaturiko istorioa eskaini digu idazle gazteak –irakurlearen eta protagonistaren arteko identifikazioa erraztuz- eta narratzailea den neskatila gaztetxo irakurle inplizituaren adinekoa izateaz gain, irakurle horri zuzentzen zaio Izeko Mirenekin gertatzen dena kontatzeko.

«–Gaur arineketan irten naiz ikastolatik. Patioko atea zehartu eta amatxo besarkatu dut gogo-betez. Ez, ez pentsa ikastolan txarto pasatzen dugunik. Ez, horixe.» (7. or.)

Ipuinaren hasiera bizi eta zuzenean irakurle Uxueren istorioan erabat murgilduta aurkitzen da. Uxuek izebarekiko miresmena adierazten du familiarra irakurleari aurkeztean, baina berehala, izeba eta amaren artean zerbait gertatu dela nabari da. Hitz egin ezin den zerbait, komentatzen ez duten zerbait.

Goio Ramosek oso modu sinplean planteatzen du sexu bereko pertsonen arteko harremanena. Helduek hain gaizki (edo aurreiritziez beteak) eta haurrek hain modu naturalean ikusten duten harreman gisa aurkezten zaigu bi emakumeen artekoa. Eta, hain zuzen, horixe dugu liburuaren merituetako bat, sinpletasuna. Irakurleak, betiere Uxueren begiradaren bitartez, neskatilaren amak erakusten duen jarrera ezkorra, haserre eta gaitzesgarria ikusten duen bitartean, ohartzten da «Izoko Mirenen eta Arantzaren begiradak une batez gurutzatu direnean txiritak ateratzeko moduko argitasuna piztu» (36. or.) zaiela begietan.

Narrazioaren tonua lortua da, barnekoa, pertsonala, eta era berean publikoa egiteko asmoz eginiko narrazioa. Eta sinesgarria da, ez bakarrik zortzi edo bederatzirenteko neskatila baten ahotan jarritako istorioa delako, baita kontatzen duenagatik, ere, neskatilaren ikuspuntua, ezagutza, munduaren ikuspegia zuzenak direlako. Narrazioaren, elkarrizketaren eta gogoeten arteko konbinaketaren bidez erritmo arina lortzen da eta erraz irakur daitezkeen istorioa lortu du Ramosek. Baina, era berean, ideologizatze asmorik gabe kontaturiko ipuina dugu hau; argi eta garbi dago zein den idazlearen asmoa eta zein den bere helburua (errespetuari eta pertsonen arteko maitasunari mugarik ez jartzea), baina landuago eta zainduago dago istorioa kontatzeko modua, tonua, ikuspegia, denboraren tratamendua... mezu horren propaganda baino.

Alde horretatik, mezu ideologiko garbia duen literatur lan baten aurrean gaudela esan dezakegu, baina beti azken ezaugarri hau (literatur lana dela) azpimarratuz.

Sentimenduak oso garrantzitsuak dira istorioan, Uxuerenak, baina baita aita, ama, izeba edo Arantzarenak ere. Eta sentimendu horiek islatzeko orduan garrantzia dute Eider Eibarren irudiek. Trazu sinpleen bidez, eta marrazkiari garrantzi handia emanez, Eibarrek aurpegi ugari—eta batez ere aurpegiak—erakusten dizkigu bere irudietan. Irribarrea, kezka, haserrea, konplizitatea edo jakin-mina agertzen zaigu aurpegi horietan, Uxuerenak gehienetan, baina baita izeba edo aitarenak ere, testuarekin bat eginez.

Goio Ramosek gaurkotasan handiko obra azaldu digu eta istorioa—bere hutsune eta gabeziekin—nola konta daitekeen erakusten digu.

Xabier Etxaniz Erle



FANTASIA JOLASAK
Gianni Rodari
Itzultzailea: JUAN KRUIZ IGERABIDE
Ibaizabal, Bilbo, 2006

Zorioneko fantasia

Gianni Rodari (1920-1980) idazle italiarra XX. mendeko haur literaturako idazle klasikotzat jotzen dugu gaur egun, literaturari zein irakaskuntzari egindako ekarpen berritzaile eta are iraultzaileengatik. «Errealismo fantastikoa» deitura ere harekin erlazionatzen da zuzenean: irakaskuntzaren mundua autoritarismoaren atzaparretan zegoen garaian, surrealismoan zein herri-literaturan oinarrituta, errealitatea fantasia-ukituez ziprizzintzeko egin zituen proposamen teoriko-praktikoak direla medio.

Hain zuzen ere, gaurkoan hizpide dudan liburuak harreman zuzena du Rodariren obra teoriko nagusiarekin, *Fantasiaren gramatika* (1973) ezagunarekin. Liburuko atalek ere, «gramatikan» umeei berek gartzeko proposatutako ariketei jarraitzen diete.

Lehenak, «Binomio fantastikoa» izenekoak, zerikusirik gabeko bi hitz lotzeko helburuz idatzitako hiru istorio biltzen ditu. Hurrengoak, berriz, «zer gertatuko litzateke...» ariketa ezaguna da, hau da, zenbait hipotesi fantastiko oinarri hartuta idatzitako kontakizunak. Atzizki eta aurrizki bidez hitz berriak asmatu, eta haiekin istorioak sortzeko ere bertan aurki daitezke. Baita esaera zaharrak edo eguneroko hizkeratik hartutako lokuzioak zentzu hertsian hartzeak eragin ditzakeen kontakizunak edo alfabetoko letrekin egindako jolasak ere.

Emaizta, ezin bestelakoa izan, fantastikoa da: istorio dibertigarriak, parodikoak, barregarriak, harrigarriak... tankera guztietakoak topa daitezke liburu zoragarri honetan.

Umeei barneratuta daukaten tradizio eta hizkuntza jakin bateko hariekin ehundutako oihalak forma jakin bat hartzen du hizkuntza batetik bestera pasatzean. Horregatik, itzulpena baino gehiago, *Fantasia jolasak* «hiru eskutara» idatzitako obra dela esan liteke: Rodarik material italiarrez egindakoaren gainean Mario Merlino itzultzaileak egindako gaztelaniazko bertsioa, eta horren gainean (Merlinoren hitzaurrea eta guztiarekin) Juan Kruz Igerabidek ohikoa duen maisutasunez euskal tradizioa erabiliz eraikitakoa.

Manu Lopez Gaseni



FITXAKETA BIKAINA/ ENBORALDI GOGORRA, BENETAN
Frauke Nahrgang
Itzultzailea: HITZURUN, AINTZANE ATELA
Ilustratzailea: BETINA GOTZEN-BEEK
Ibaizabal, 2006

Futbolzale petoentzat soilik

«Futbolzale amorratuak» izeneko bilduma Alemania aldetik dator, Edelvives espainiar argitaletxearen bitartez. Eta hori gutxienez kalitate-mailaren bermea izan ohi da, aldeaz aurretik behintzat.

Lehen emanaldiak, *Fitxaketa bikaina* izenekoak, bilduma osoa izango denaren aurkezpen funtzioa betetzen du, lehen «gatazka» kontatzearekin batera. Funtsean, futbol-talde bateko bost lagunek —lau mutil eta neska bat— dituzten harremanak eta arazok dira liburu(ar)en gaia, etengabe futbol-koloreko iragazkitik ikusita. Ezin falta, noski, eskola eta familiagirotza, eta horien bidez sortutako bigarren mailako pertsonaia asko.

Arestian aipatutako gatazkak bi motatakoak dira. Alde batetik, liburu bakoitza bideratzen duen banakako gatazka. Lehenengoan, Moritz, gurasoak bananduta, herriz aldatzen da amarekin batera; egoera berria onar-

tzeko zailtasunak gaudituta, futbol taldean sartzen da arrakastaz. Bigarrenean, eskolako emaitza kaskarrak ikusita, Nikori debekatu egiten diote futboleko aritzea; azkenean, hobetzeko hitza emanda, gurasoen zigorra arintzea lortzen dute. Eta, bigarren motako gatazka, espero zitekeenez, futbol-gatazkak dira, han-hemengo taldeen kontra jokatutako partidaren deskribapen epiko sarriek osatuak. Testuetan zehar futbolaren inguruko (sasi)filosofia modukoa isurtzen da, bi motako gatazkak batzera datorrena. Hala, lehen liburuan, Moritz herriz aldatuta eta aitak entrenatzen zuen taldea utzita, hauxe irakur daiteke: «Aitak laster aurkituko du beste golegileren bat; begi zorrotza du talentu berrietarako. Entrenatzaile ona da. Baina aita txarra. Gezurti, iruzurti eta traidore alaina!» (32. or.).

Bigarrenean, berriz, Nikoren arazoa zein ote zen jakin aurretik, haren portaera ikusita, beste hauxe: «Sinestezina! Niko denek uste baino askoz ere okerrago dagoela dirudi. Burua galduta. Batzuetan hala gertatzen omen zaie zelai erdiko jokalariei. Presioagatik omen da» (31. or.). Horrexegatik aurreratu dut tituluan futbolzale petoei begira egindako bilduma dela hau (maitasunaren ingurukoak edo terrorezkoak egiten diren beste bilduma batzuen bide beretik, bestalde).

Planteamendu literarioaren aldetik, liburuok erraz irakurtzeko moduko idaztinkeran idatzita daude, lehen aipatutako koordinada futbolistiko horien barruan beti ere («Catrina-ren aurpegiak epaile haserre baten txartel gorriaren kolore berbera du», 17. or.). Orainaldian idatzita daude, eta hirugarren pertsona fokalizatu berezian, oso aleman estilokoa, testuari aldi berean arintasuna eta zahar kutsua ematen diotenak.



Itzulpenari dagokionez, zuzena da, oro har (ez da hau akats txikiak zerrendatzeko tokia). Hala ere, beste plaza batzuetan azaldu dudanez, itzulpena egiteko gaztelania (edo jatorrizkoa ez den beste edozein hizkuntza, berdin dio) zubi-hizkuntza gisa erabiltzeak zenbait arazo dakar. Arazo nagusia, noski, bitarteko sistema horren arauen menpeko bihurtzea da. Hizpide ditudan itzulpenen kasuan, konkretuki, erabaki batzuk ezin izan dira euskal sistemaren baitan hartu, hala nola, pertsona eta toki izenak egokitzeari buruzkoak: alemanez dauden bezala uztea erabaki da, gaztelaniaz egindako moldaketa txiki batzuekin (Catrina izena «c»rekin idaztea, susmatzen dudanez), eta izen horiek esanahiren bat dutenean, oin-oharren bidez azaltzea: «Telfelsgrund: Espirituen Zelaia». Beste kasu batzuetan, nire ustez, itzultzeko aukera garbia egongo zen, baina ez da egin; esaterako futbol-taldearen izenarekin: Grün-Gelb (Berde-horriak). Lehen liburuko jatorrizko izenburua, berriz, *Moritz macht das Spiel!*, *Fitxaketa bikaina* bihurtu da erabakigune beraren aginduz. Eta

bilduma herritar zintzoen sortzaile gisa planteatzen duten paratestuak ere Edelvives taldearen baitan eginak direlakoan nago: «Bilduma honek futbolaren alderdirik onenak nabarmentzen ditu: solidaritatea, elkarren arteko laguntza eta sexu- edo arraza-bereizkeriarik eza».

Laburbilduz, liburuok, sail bat osatzeak eta halako gai murriztailea erabiltzeak dituzten eragozpenak izanik, duintasunez idatzita, euskaratuta eta argitaratuta daudela esan daiteke.

Manu Lopez Gaseni



HAGINAK ETA HILOBIAK
Landa, Mariasun
Ilustratzailea: ASUN BALZOLA
Erein, Donostia, 2005

Berrargitaratu berria du Ereinek Iholdi saila, zorionak, eta sail honetan Mariasunek idatzi duen seigarren liburua dugu hau, *Haginak eta hilkobiak*. Sail osoak aipamen berezi bat merezi du; izan ere gutxi dira gurean, denboraren garapena hain ongi jasaten duenik. Zergatik ote? Bat edo beste arrazoi literarioen bila hasiko litzateke berehala eta ez luke hutsik egingo. Izan ere, ongi orrituak daude liburu guztiak elementu literarioz: argumentu interesgarriak, erritmo bizi zein egokia, liburu bakoitzaren pasarte bakoitza ongi tramatuaz gain sinesgarria suertatzen zaio irakurleari. Ikuspuntu bereziak erabiltzen ditu; ez gaude ohituak haur literaturan halako narratzaile ausartei irakurtzen, hildakoen ahotsak bizirik daudenen ahotara ekarri eta gainera irakurlearekin elkarriketan jarduten duenik.

Baina batek esan lezake erabiltzen dituen tonok ez direla gaurko haurren gustukoak. Ekintzak emozioen aurretik baloratzen dituztela gaur egungo haurrek, eta batek daki zenbat eta zenbat aurreiritzi. Nik lerrotxo hauek idatzi aurretik, behin betiko frogatu bat egitera animatu nin-

tzen, eta honen emaitzak dakartzat mahai gainera, alferrikako arrazoi aspergarrietan luzatu gabe. Poliki irakurri nuen liburua eta niretzat kilikagarriak ziren gauzak azpimarratu nituen. Gerokoaren hipotesiak bururatzen zitzaizkidalako, irripar bat sorrarazten zidatelako, zerbait gogora ekartzen zidatelako, pertsonai eta egoerekin identifikatzen nintzelako...

Ondoren, nire liburua hartuta, zortzi eta hamaika urte bitarteko sei geletan sartu, eta aurkeztu nien ikasleei. Pasarte batzuk irakurri, hemen moztu, han luzatu, hor sinonimo bat... Inon ez zait gertatu haurren indiferentzia antzematea, adin desberdin, interes desberdinak baziren ere, adi entzun, eta askok liburua hartu dute irakurtzeko. Galdeketa txiki bat egitera ere animatu nintzen. Xamurtasun handia erakusten zuten ikasleek Deo Gratias-i buruz hitzegin behar zutenean, Iholdik haren sekretua gordetzea estimatzen zuten beste edozeren gainetik. Haur askok ezagutu eta estimatzen dituzte zaharrak direlako, gaixorik daudelako edo bestela erresidentzietan bizi diren pertsonak. Bizi-bizia da gai hau haurrentzat eta interes handia erakusten dute honen gainean, errukia eta konplizitatea beren ustez bakarrik eta triste bizi diren pertsonetako.

Abenturari begira, misterio kutsua entretenigarria suertatzen da; emozioa gehiten dio narrakerari, beldur pixka bat erantsi tramari, baina aldi berean, umore kolpe finek arindu egiten dute beraz, makabro xamarra den *Deo Gratias*-en afizio xeble hori. Sorpresaz sorpresa garatzen da irakurketa bukaera bitartean, eta interesguneek sekuentzia eder bati obeditzen diote, narrakararen jakinduria handia erakusten duen Iholdiren kontakizun hunkigarri horretan.

Zorionak beraz, berrargitalpenarengatik, irakurle berri askok izango baitu aukera, denboraren galbahea pasa duen bilduma hau ezagutu eta irakurriz gozatzeko.

Denborak aurrera egin du iruskin hau argitara atera den artean. Eta lholdiri hasieratik oraindano indarra eman dion Asun ez dago. Ziklo bat bete da lholdiren bizi-bidean, baina bere ibil-bideak ez du mugarik gure begien bistan, opa dezaioگون geroa luze eta osasuntsua.

Itziar Zubizarreta



GARMENDIA ETA FANNYREN SEKRETUA

Kirmen Uribe

Ilustratzailea: MIKEL VALVERDE
Elkar, Donostia, 2006

Poetaren alderdi menturazalea

Kirmen Uribe idazle bizkaitarrak Ameriketara joandako euskaldun baten inguruan 2003an abiarazitako «Garmendia» bildumaren hirugarren emanaldia da *Garmendia eta Fannyren sekretua*. Beste hainbeste euskaldunek egin zuten legez, Garmendia ere euskal foruen galera-oren ondoriozko krisiaren eraginez joango zen, artzain; laster, ordea, pistolari bihurtuko zen, eta halabeharrak alde batetik bestera erabiliko zuen, Amalio bere lagun mexikar leialarekin batera. Lehen liburukian Zaldun Beltzarengandik ihesi ibili ziren; bigarrenean, Ameriketara barrena Buffalo Bill-en zirkuarekin; eta, hirugarren honetan, nora eta Venezia-ara joan dira Fanny *Sirena Salooneko* lagunaren bila.

Fanny, izan ere, herritik desageru egin baita; eta utzi dituen arrasto urriek Italia seinalatzen dute egon-

leku ziurrentzat. Haraxe abiatzen dira, beraz: lehen etapak New York-era eramango ditu, bertan itsasontzia hartuta Venezia-ara joateko.

Fanny Garmendiaren amodio aitorrezina baita; eta horixe da, hain zuzen ere abentura guztiaren atzean dagoen gai nagusia, liburuko lehen esaldian zein azkenekoan esplizituki adierazia: «Maitemina bihotzeko azkura da, hazka eginez pasatzen ez den azkura».

Alde horretatik, Uribe poetaren alderdi menturazalea zertan den eta noraino iristen den azaldu beharko litzateke. Hasteko, gure artean urte askoan boladan egon den «errealismo kritikoa» delakotik aldentu, eta haur eta gazte literaturan debuta egiteko abenturazko genero bat aukeratu du: *western* delakoa edo. Idazleak badaki, ordea, gaur eguneko irakurleek (batez ere bitartekariak, noski) nekez onartuko luketela aspaldian indarra galdutako genero bat bere horretan berpizturik ikustea. Alegia, gaur egun inor gutxi sinistuko luke «klasiko» itxura hartu nahi lukeen *western* istoriorik, eta horregatik Uribe begi keinuz, trabestimendu parodikoa erabiliz kontatzen ditu bere istorioak (Anjel Lertxundik *Madame Kontxesi* delako sailarekin detektibe-generoari aurre egin zion bezala). Horrelako generoak berreskuratzeko bi urrats eman ohi dira: lehena, helduei zuzenduta zegoen generoa orain haurrei zuzentzea; bigarrena, parodia eta umorea erabiltzea. Hala, Garmendiaren kasuan, heroia ez da pertsonaia gogor apolineoa, sentibera eta dionisiakoa baizik; eta abentura barrena gertatzen diren egoerak, oro har, barregarriak izaten dira. Hartzaille-alaketarekin batera, begirada ironiko bihurtu da.

Baina Garmendia saileko testuetan bestelako jolasak ere egiten dira. Esaterako, poesia oso presente dago

beti, *Garmendia eta Fannyren sekretua* honetan gondolariaren olerkia nahiko (eta nahita) barregarria bada ere; Xi sukaldari txinatarra ahaztu gabe, galletatxoan barruan poemak idazten dituen. Edo helduon iruditerian oso txertatuta dauden pertsonaiak agerrarazten dira: Buffalo Bill eta Sitting Bull, aurrekoan; Casanova, oraingo honetan... Ekintza nagusiaren haria atzeratzeko sarritan erabiltzen den beste baliabide bat bigarren mailako istorioak tartekatzea da, dela pertsonaiaren baten ahotik, dela amestutako istorioen bitartez.

Aipamen berezia merezi duen beste kontu bat liburu hauetan zehar Uribek garatutako poetika da. Horrelakoak, normalean, «estilo zainduaren» aipamena eginez garbitu ohi dira. Hala ere, haurrentzako liburuetan estilo zaindua topatzea ez da uste bezain ohikoa. Uriberen estilo pertsonala zenbait ezaugarritan gauzatzen da: irakurketa izugarri laguntzen dion sintaxi erritmikoa, pertsonaia bakoitzaren karakterizazioa hitz egiteko modu xebreraren baten bidez, eta, narra-tzailearen ahotsari dagokionez, oso identifikagarriak diren esamolde markatuen erabilera, horietatik batzuk idazlearen jaioterriko hizkeratik hartuak («pentsatu zuen bere bostean», «izerdi plotean esnatu», «zakurra elizan baino galduago»...). Alde horretatik, aurreko belaunaldiko Patxi Zubizarretak aurkitutako ahots pertsonala gogorarazten dit, distantziak distantzia.

Aurreko guztia bilduz, bada, esan daiteke Kirmen Uribek genero jakin bat baliatu duela bere literatura propioa garatzeko aitzakia gisa, eta ez alderantziz.

Manu Lopez Gaseni



EN UN BOSQUE DE HOJA CADUCA
Gonzalo Moure
Ilustratzailea: ESPERANZA LEÓN
Anaya, Madril, 2006

Harribitxia

Txori erresñola sarri ageri da gure kantutegi zaharrean, baina inork gutxik antzematen dio gaur egun basoan, inork gutxik daki zein txori mota den. Noizbait entzuna dut editoreek idazleei eskatu izan dietela beren ipuinetan kuku erlojurik ez agertzea, inork gutxik eza-gutzen baitu halakorik. Hortik atera kontuak. Eta hortik segitu dezakegu liburu bitxia eskaini digula oraingoan Gonzalo Mourek, liburu exigentea. Liburuak Anaya argitaletxearen HGLko III deialdiko saria jaso zuen, argitalpen berezian dator, baina, esan bezala, ez da erraza: neskatala batek, uda batez, txoritxo batekin duen harremana kontatzen digu, estiloan amore eman gabe, sentimendu handiz, batzuetan ukitu naif edo xaloa bereganatuz. Funtsean, existentziari buruzko hausnarketa poetikoa eskaintzen digulakoan nago, eta hori ez

da ohiko lehen hilekoa, lehen musuaz edo lehen porroaz okitua dagoen gazte literaturan. Horregatik da bitxia, eta harribitxia. Egizu frog.

Laura Sagastume

AXENARIO

Julen Renard

Itzultzailea: ITZIAR OTEGI

Alberdania&Elkar, Donostia, 2006

Tristezia egoerak haur txikiei zein pertsona helduei ukitzen die. Hala ere, heldu asko saiatzen da haurrei amaiera tristeko ipuinak ezkutatzeko. Uste dute haurren liburuak alaiak eta baikorrak izan behar dutela, ilustrazioen koloreek eskatzen duten moduan: argitsuak eta biziak eta, inolaz ere, ilunak eta opakoak.

Jende gutxi jarriko da pentsatzen istorio tristeak izan daitezkeela, batetik, aberatsak haurraren garapenean eta, bestetik, euren burua ezagutzeko tresnak, hau da, baliagarriak izan daitezkeela norberarena bereganatzeko eta identifikazio bideak emateko.

Lehenik eta behin, beraz, horixe otu zait Axenario liburua irakurtzean. Nago gazteek ere irakurri dezaketela liburu hau, eta gazte literatura bilduma batean argitaratu ez izanak lotuta dago helduen aurreiritziekin.

Askotan pentsatzen dugu irakurle gaztea ez dela gauza izango ulertzeko guk helduok irakurtzen ditugun liburuak. Eta agian, hala da, baina horrek ez luke oztopo izan behar guregan zirrara berezia eragiten duten liburu horiek haiei ez gomentatzeko, edizio ederrean eta ilustrazio bikainekin, *Pelo de zanahoria* gazteei begira kaleratu zuenean. Euskaraz, ordea, 'Literatura Unibertsala' sailean dugu, irakurle helduari begira, letra mota txikian, azaleko marrazkia soilik duela. Frantzia 1894. urtean argitaratu zuten eta harrezkero, *Poils de carotte* liburuak da idazle honen libururik argitaratuena. Gaztelaniaz ere berriki ateratu du Lumen argitaletxeak, Ana M^a Moixen hitzaurre interesgarri batekin. Berrito ere gaia mahairatzen du, hau da, egokia ote den gaur egun liburu hau gazteek irakurtzea.

14 +



Gaian bertan dago kakoa: ama krudelaren papera eta haurrari ematen dion tratua. Amek pertsonaia maitagarriak, goxoak eta irribarretsuak izan beharko lukete; horrelakoa al da gure ingurua?

Axenario gazte azkarra eta bizkorra da, bihotz onekoa baina konplexua eta kontraesan bezala, gazte bati dagokion bezalaxe. Bartzuetan maltzurkeriaz jokatu du (animaliekin, esaterako) edo bere asmoak betetzeko trikimailuak erabiliko ditu. Neurri berean erabiliko ditu amak agintea eta mesprezua berarekin. Pertsonaien izaerak ondo markatuak agertzen zaizkigu, eguneroko elkarrizketak, aita/ama eta semearen artean, bikainak dira. Antzerkiaren tankera handia dute, egitura bera ere horrelakoa izanik, eredu apurtzailea. Ez dago ez korapilo bat ezta argumentuaren haririk ere. Historia pasadizoz osatzen da, aldiunez. Istorio sinpleak baina sentimendu eta arazo sakonak ezkutatu dituztenak, familia guztietan daudenak bezalakoxeak.

Liburu honek ez du hotz utziko

irakurlea, digestio ona egiteko aproposa ez bada ere. Emozioa, kuriositatea eta konplizitatea eskatu eta eragiten ditu. Kontzientziak astintzeko akuilua izan daiteke, inguruan eta munduan frogatzeko modukoa. Istorioa gogorra izanda, haurraren hausnarketak umorez eta ironiaz zipriztinduta daude, tonua leuntzeko asmoarekin.

Itziar Otegi liburuaren itzultzaileak lan bikaina egin du, hitzaurre interesgarria eta argibidez bete. Edizioak, berriz, asko irabaziko luke letra handiagoa izanez gero, eta behar bada, Antton Olariagaren azaleko irudia baino gehiagorekin.

Asun Agiriano



MARTAREN INFERNUA
Pasqual Alapont
Itzultzailea: KORO NAVARRO
Erein, Donostia, 2006

Huts egindako thriller-a

Gauza batean bederen bizitzea eta irakurtzea antzekoak dira: bidean aurrera egiten den neurrian eskarmentua eskuratzen da batean zein bestean.

Martaren infernua Pasqual Alapont idazle valentziarraren gazte-eleberriri ibilbide arrakastatsua izan du orain artean, horretarako osagai batzuk biltzen dituelako: klase erdialtuko ohiko pertsonaia gazteak eta hiriko testuingurua, protagonista nabarmen onak eta antagonista nabarmen gaiztoa, izuzko eta tentsiozko egoera batzuk, eta ikaskizuna barne daraman amaiera zoriontsua. Horixe da gaur eguneko gazte-eleberrigehienetan behin eta berriro errepikatutako arren, irakurle gazteak nekatzen ez omen dituen eskema.

Ikasketa unibertsitarioetako azken kurtsoan dabilen neska batek, Martak, izaera aldakorreko mutil bat ezagutzen du, eta hartaz maitemintzen da. Eta, maitasuna itsua omen,

14 +

pisukideek sarritan ohartarazten duten arren, ez da konturatzen mutilaren jarrera iraingarri, bizkarroi eta bortitza. Kontrazala irakurrita, irakurleak badaki mutil hori psikopata bat dela; eta atariko kapituluaren aurreko neskalaguna hil duela ere badaki. Aurrekari horiekin irakurle despistatuena ere suspensezko garapena eta amaierako klimaxa esperoko lituzke. Baina hori antza nahikoa ez, eta narratzaile orojakile, nekoso eta erabat partziala etengabe aritzen da gertakizunak aurreratzen: «Baina Marta gajoak ez zekien ordea infernuko ateen beste aldean zegoela, bere infernu partikularreko ateen beste aldean» (63. or.).

Beste alde batetik, bi maitaleak ez taitan eta maitasunaren garrak erabat jota daudenean ere, eleberr osoan zehar behin ere ez da ukimen sexualik deskribatzen, ez aipatzen, ez eta iradokitzen ere. Eta irakurle hasiberriena ere harritu egiten da. Baina harridura horrek sabaia zulatatu arte goia jotzen du eleberria amaitzeko laurdena baino gutxiago falta dela, neska haurdun dagoela iragartzen denean. Alde guztietatik bazter uzteko moduko korapilo berri horrek askapena eskatzen du, noski: psikopataren umea izan ala ez izan. Eta honetan bai, koherentzia jokatu du idazleak: XIX. mendeko narratzaile iruzurtia erabili duenez gero, amaiera ere XIX. mendekoa aukeratu du.

Irakurketan bizitzan baino eskarmentu gutxiago duten gazteen artean arrakastatsua izan omen da eleberr hau: arrakastaren eta kalitatearen bideak, oraingoan behintzat, gurutzatu ez diren seinale.

M. L. G.

Besteak



ANDAR ENTRE LIBROS
Teresa Colomer
Fondo de Cultura Económica, Mexico, 2005.

Behinola aldizkariko irakurleentzat ezaguna da Teresa Colomer irakaslea. Argitalpen honen hasieretan elkarrizketatu genuen, eta ondoren haren artikulu bat ere plazaratu izan dugu. Horrez gain hainbat hitzaldi eman ditu gure artean Bartzelona Uni-bertsitateko irakasle honek.

Andar entre libros lanean, oso modu zehatzean (eskatimikoa zenbait kasutan) aritzen da haur literaturaren inguruan. Liburuak bi zatitan banaturik dago, lehena Eskola, irakurleak eta liburuak izenekoa, eta bigarrena Eskoletan egin daitezkeen irakurketek buruz.

Haur literatura eta irakaskuntza harremanari buruz asko hitz egin da, mendekotasuna, erabilera ezberdinak irakaslearen eta liburuaren arteko harremanak... Lan honetan, Colomer irakasleak prozesu horiek nola bideratu eta nola gauzatu azaltzen digu, zernolakoak izan behar duten harreman horiek, nola jokatu

behar dugun Eskolan haur literatura-ekin. Eta hain zuzen horixe da liburu honen baliorik handiena, irakurlea –saiakera honen irakurlea– hez-teaz gain, hainbat eta hainbat pista ematen baitizkio egileak. Izan ere, Colomerrek liburuaren hitzaurrean dioen bezala, liburu hau egiterakoan bere esperientziatik abiatu da, maistra moduan aritu zenetik unibertsitateko irakasle deneraino, eta horrela liburuei eta maisu-maistrei buruzko lana dugu hau, edo, hobeto esanda, beraien arteko harremanaz.

Ohi bezala, Teresa Colomerrek, ongi egituraturik aurkezten dizkigu bere gogoetak. Oinarri sendo eta zientifikoetan eraikitako gogoeta guztiz gomendagarri horiek oso modu argian eta sinplean daude adierazita, liburuaren hartzailea izan daitekeen maisu-maistra (baina baita liburuzain edo unibertsitateko ikaslea) gustura eta atseginez hurbil dadin haur literaturaz eta honen didaktikaz ez den baina era berean baden liburu honetara.

Xabier Etxaniz Erle



LITERATURAK UMEEI BEGIRATU ZIENEAN

Manu Lopez Gaseni
Pamiela, Iruña, 2006

Begirada lausotuak

Iaz Gasteizko «Becerro de Bengoa» entsegu saria irabazitako lan hau ez da azterketa sistematikoa. hori ohartarazten digu hitzaurretik beretik Manu Lopez Gaseni egileak, bere asmoak adieraztean: «Arlo horren inguruko zenbait azterketa akademiko egin ondoren sortutako ideiak, materialak eta gogoetak plazaratu nahi izan ditut hemen, ikerketa unibertsitarioak ezarritako gerruntze estuegitik aske irakurleria zabalagoa izan dezakeelakoan».

Eta nabari da egilea aske ibili dela sortzaileari begiratzean –haren barne gogoaz dihardu, edota, bitxia bada bitxi, idazleak seme-alabak izatearen edo ez izatearen eraginaz–, berriro ere itzulpenaren garrantzia nabarmentzean, liburua plazaratu ondoko ibilbidean dauden pertsonak eta haien jarrerak agertzean... Eta bitxia bada ere, historia liburua izan gabe, HGLren historiako hainbat zertzelada nagusi agertu zaizkigula

iruditu zaigu, eta ezaugarririk funtsezkoenak, eta oso zehatza dela arlo horretan oraindik ere dauden gabeziak zerrendatzean.

Finean, HGLri oraindik ere errezeloz zergatik begiratzen zaion argitzera dator lan hau, eta badirudi horren isla liburuko azala bera dela, non Otto Dix-en ume batek helduari begiratzen dion, errezeloz begiratu ere... Esaera batek dioenez, zetazkoa omen da haurren barrena, eta marka uzten du handik pasatzen den guztiak. HGLk ere bere marka propioa utzi beharra dauka, baina horren eraginak sarritan zalantzazkoa izaten jarraitzen du.

Irakasle jakingoseak, irakurle unibertsitarioak eta bestelakoak atseginez egingo du entsegu honetan aurrera, nahiz eta agian desatsegindu egingo den egilearen hainbat ondorio irakurtzean: «Baldintza horiek guztiek egoera zail samarrean jarri dute Haur eta Gazte Literatura (gogoratu Emili Teixidor-en hitzak, HGLren egungo helburua gehiago dela herri-tar onak heztea irakurle onak heztea baino). Hala, kritikarien artean hasiak dira zenbait ahots entzuten (oraingoz ahopeka esandako hitzak dira), esanez egungo HGL ideien krisi gorrian dagoela, eta xantillizkoa den literatura politikoki zuzena besterik ez dela egiten».

Laura Sagastume


🎧 Hitz beste 🎧

OCNOS. Revista de Estudios sobre Lectura.
CEPLI – (cepli@uclm.es)

2005eko amaieran Castilla-La Mancha Unibertsitate barruan dagoen CEPLI ikasketa zentroak Irakurketaren inguruko aldizkari unibertsitario berria plazaratu zuen: OCNOS.

Lehenengo zenbakian Portugal, Espainia eta Britainia Handiko unibertsitateko irakasleen lanak agertzen zaizkigu, Haurren irakurketa harreraz, irakurle berrien inguruan, gaur egun Folkloreak irakurketan izan dezakeen eraginaz, irakur zaletasunaz... aldizkaria osatzen duten zazpi artikuluetan argitalpen berri honen bultzatzaileen asmo argia ikus daiteke: irakurketaren inguruan gogoeta bultzatzea, eta batik bat, gogoeta eta saiakera hori goi mailakoa izan dadila. Eta helburu horiei eutsiz argitaratu berri dute

Besteak



–2006ko urrian– 2. zenbakia. Bigarren ale honetan haur literatura errebindikatzen duen artikulua bat dugu, baina baita publizitateari buruzko beste bat, irakur zaletasuna DBHn

aztertzen duen beste bat... edo Txanogorritxu eta Otso eta zazpi antxumeak ipuina erlazionatzen duena, besteak beste.

Artikuluaren kalitatea handia izanik ere, badira zailtasun handiagoak edo txikiagoak batzuetatik besteetara, arin irakur daitezkeenak, oinarri teoriko sendoa eskatzen dutenak... baina, oro har, guztiz txalagarria da irakurketaren inguruko argitalpen zientifiko hau aurrera ateratzeko eginiko esfortzua. Urtean ale bakarria plazaratzeko asmoa dute CEPLIkoek, eta maisu-maistra, psikologo, irakasle, soziologo, bibliotekario eta irakurketarekin kezkatuak dauden guztiei zuzendutako argitalpen gomendagarria da OCNOS aldizkari berri hau.

Xabier Etxaniz Erle

XABIROI BERRIAK KALEAN:
KOMIKI FRESKUE!
Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa

Hona hemen laugarren *Xabiroi*, dagoeneko kalean egongo diren bosgarren eta seigarrenaren aurrekaria. Gazte, eta ez hain gazteentzat zuzendutako komikia euskaraz, euskal egileek egin gehinbat. Aurreko zenbakietan bezala, euskal mitologia, suspentsea eta zientzia fikzioa dira nagusi atalka kontatzen diren hiru istorio luzeen laugarren emanaldian, eta umorea nonahi gainerako orrialdeetan. Joxean Muñoz eta Juan Luis Landa ~Irati~, Harkaitz Cano eta Iñaki Holgado ~Piztia otzanak~, Olier eta Marko ~Haratago~, Asisko, Manu Ortega ~Haizea~, Dani Fano ~TeleATOI~ eta Rober Garay dira zenbaki honen 36 orrialdeak idatzi,



marrastu eta margotu dituzten kontalariak. Berme handiko egileak, emaitza ezin erakargarriagoan hezurramitzen dena.

Aurten Xabiroi berezi bat ere izango da kalean urteko ohiko hiru zenbakiez gain. Lau istorio labur, zein baino zein original eta desberdinago, kontalari bikote bereziak sortuak. Arantxa Iturbek, Patxi Zubizarretak, Iban Zalduak eta Asisko Urmენტak asmatutako istorioei, irudiak ipini dizkiete Manu Ortegak, Iñaki Holgado, Julen Ribasek eta Markok. Gainera, bosgarren alean ospe handiko gonbidatu batek hartuko du parte: bosgarren istorio bat eta azala Arthur Suydam amerikarrak egin ditu.

Gogoratu Ikastolen Elkartearen babesean sortu eta Dani Fanok koordinatutako aldizkari-komiki hau 2006ko martxotik aurrera liburudendetan salgai dagoela. Eskura ezazu, ez zaizu damutuko.

Pepo Urrutia